

OÑATIKO UDALA ETA OÑATI
ABESBATZAREN ARTEKO HITZARMENA

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Alde Batetik, **IZARO ELORZA ARREGUI andrea**, **3963**G NAN zenbakia duena, Oñatiko Udaleko alkate eta ordezkaria dena. Helbide soziala: Oñatiko Foru enparantzan z/g.

Bestetik, **XABIER MARTIN CELAYA ARZA jauna**, **7636**X NAN zenbakia duena, Oñati Abesbatzako lehendakari eta ordezkaria dena. Helbide soziala: Aita Mortara kalea, 1.

AURREKARIAK

Oñati Abesbatza (G20465688) ahots mistoek osatzen duten abesbatza da, 1966an sortutakoa. Bere ibilbide luzean jaialdi eta omenaldi askotan hartu du parte, batez ere, Euskal Herrian, baita ere Frantzian eta Espainiako beste herrialdetan. Kontzertu ugari eman ditu, gehienak "a capella", baina baita organoz eta orkestraz lagunduta ere.

Euren programaren ezaugarri nagusia euskal musika-tradizioa sustatzea eta kontserbatzea da, bai erlijio-errituekin lotuta – horietako asko sekularrak –, bai gizarte-bizitzako une garrantzitsuekin lotuta – batez ere udalerrian –.

Helburu humanistiko eta sozialak ere badu Abesbatzak. Urtero, auzo elizetan programatutako jardueren partaide dira. Gizarte-egoera ahulean dauden edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden kolektiboekin ere parte hartzen dute hainbat ekitalditan.

Gaur egun 46 kidek osatzen dute Abesbatza. 2023an kide berriak sartzeko kanpaina egin zuten, eta hamar ahots berri batu ziren taldera. Gaurko egoeran lan asko egin beharra dago kantu koralerako zaletasuna duten pertsonak koru batera erakartzeko. Horregatik, abesbatza sendotzeko neurri aproposak prestatu dituzte; esate baterako, euren ezagutza eta presentzia zabaldu eta kide berriak erakartzeko estrategiak aztertze laguntza profesionala erabiltzea. Bestalde, inguru eta abesbatzei begiratuta, taldearen nortasuna bereiziko duen jantziz hornitzea da euren asmoa.

2026an 60. urteurrena ospatuko dute, eta hau aitzakia hartuta, programazio berezia prestatzen ari dira. Hortaz, Oñatiko Udalak eta Oñati Abesbatzak elkarrizketak izan dituzte urteurreneko egitaraua aurrera eramateko lankidetzaren hitzarmena lantzeko. Abesbatza honek Udalaren dirulaguntza jaso du urtez urte, eta urteetan egindako lanaren balorazioa aintzakotzat hartuta, urteurreneko programazioa garatzeko lankidetzaren adostu dute.

Horiek horrela, parte hartzaileek, duten ordezkartzaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua kontuan izanik, 2026 urterako lankidetzaren hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

Lege bereko 28. artikulua zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresna. Hitzarmenek, legean xedatutakoa denez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jaso beharko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera, aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntzak izenduna izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza hauek emateko prozedura ofizios hasi daiteke edo eskatuta, eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen lankidetzaren hitzarmenarekin amaituko da.

Beraz, dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarri den gainerako araudia ezarritakoa betez, bi aldeek, lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

KLAUSULAK

1. XEDEA

Hitzarmen honen xedea da OÑATI ABESBATZAREN aldeko dirulaguntza zuzen eta izenduna arautzea, Abesbatzaren 60. urteurrena ospatzeko aurkezturiko programazioa aurrera eramateko gastuen finantzazioan laguntzeko.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.m artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

Bere xede eta eskumenen garapenean (7/1985 Legearen 25.1 artikulua), Oñatiko Udalaren helburu nagusietako bat tokiko kultura eta jaiak sustatzea da; helburu sozial-kulturala duten elkarteentzako diru laguntzak bideratzea eta laguntza kultura eremu guztietara zabaltzea.

Diru laguntzei buruzko Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 2.1.c. artikuluan honako hau dio: diru laguntza moduan ulertzen da proiektu, ekintza, jarrera edo egoera finantzatuaren sustapena non onura publikoko edo interes sozialeko jarduera sustatzea helburu dutenak.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22. artikulua dio (22.2. a atala) toki erakundeetan aurrekontuetan aurreikusitako diru laguntza nominatiboak zuzenean eman ahalko direla, hitzarmenetan eta diru laguntza horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 28. artikulua dio hitzarmena izango dela toki erakundeetan aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

3. OÑATIKO UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKOA.

Dirulaguntza: zuzena eta izenduna.

Diruz laguntzen den egitasmoa: Oñati Abesbatzaren 60. urteurreneko programazioa.

Hitzarmen honen lehenengo klausulan adierazitako zeregina garatzeko helburuarekin, Oñatiko Udalak ZORTZI MILA (8.000 €) euro ordainduko dizkio Oñati Abesbatzari dirulaguntza zuzen eta izendun gisa.

Hitzarmen honen xede den diru laguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2026 urteko Udal aurrekontuetan. Diru laguntza 1.0800.481.333.01.01. 2026 partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da eta behar bezalako nahikoa kreditua du.

4. OÑATIKO UDALAREN BETEBEHARRAK

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, legez (Apirilaren 18ko, 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 114. artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

5. BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA ETA BALIABIDE BATZUEKIKO BATEGARRITASUNA.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin. Hala ere, beste finantzabide batzuk lortuz gero, ezingo da inoiz izan gain-finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

6. GASTU HAUTAGARRIAK.

Diruz lagundu ahal izango dira, bakar bakarrik, Urteurrenaren antolaketatik eta bertatik eratorritako eginkizunen antolaketarekin zerikusia duten gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen jardueren kontzeptuak honako hauek izan daitezke: egitaraua gauzatzeko kontratatuko diren taldeen gastuak, dokumentazio lanak gauzatzeko ekintzak, hedabideetako jarduerak,... urteko programazioaren garapenarekin zerikusia dutenak, alegia.

Diruz lagunduko den programazioa eta aurrekontu orokorra:

Abesbatzak 2026.urtean, ondoren zehazten diren jarduerak gauzatea aurreikusten du, jarraian adierazten den aurrekontu xehatuaren arabera:



Data	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
Martxoak 14	SUHAR kontzertua	4.500 €
Apirilak 14	Hitzaldia: Gurutz Linazasoro	300 €
Apirilak 21	Hitzaldia: J. Antonio Azpiazu	300 €
Urriak 17	Oñati Abesbatzaren kontzertu nagusia	5.000 €
	Publizitatea eta komunikabideak kudeatzeko aholkularitza profesionala	10.400 €
	Abesbatzaren jantzien eguneratzea	3.400 €

Abesbatzak eginiko eskaeran (Sarrera erreg: 5490) aurkezturikoa oinarri hartuta, programazio hau gauzatzearen aurrekontu osoa, guztira, hogeita lau mila eurokoa (24.000€) da. Aurreikusten diren sarrerak: 24.000€ dira.

Proiektuaren kostu osoa kontuan hartuta, erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntzen edo/eta laguntzen batuketaren ondorioz gehiegizko finantzaketa gertatuz gero, onuradunak soberakina itzuli beharko du. Oñatiko Udalaren nahiz proiektuan parte hartu duten persona fisikoen zein juridikoen aldeko soberakinen diru itzulketa, partaide bakoitzak proiektuari emandako dirulaguntzaren proportzioan gauzatuko da. Oñatiko Udalaren kasuan 8.000€ko dirulaguntzaren proportzioan (34.artikulua, LRGS).

7. GASTUEN JUSTIFIKAZIOA.

Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko da:

- Egindakoaren memoria laburra.
- Izandako gastu-sarreraren laburpen-etaula.
Horretarako, Oñatiko web orritik jaitsitako gastu-sarreraren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da. (www.oñati.eus).
- Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztuz.
- Epe muga: 2026ko abenduak 31, osteguna, baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak.

Hitzarmen honetan aurreikusitako diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe lotura duten gastuak aurkeztu beharko dira eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaieran baino lehen sortzen direnak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

8. ORDAINKETA.

Dirulaguntza ordainketa **bi zatitan** egingo da:

Lehen zatia: 2026. urtean, akordioa onartzen den unean. (%70) Guztira: 5.600 €

Bigarren zatia: 2026. urtean zuriketa aurkeztu eta onartzen denean. (%30) Guztira: 2.400 €

9. LAGAPENAK ETA KOORDINAZIOA.

Udalak konpromisoa hartzen du Abesbatzari, hitzarmen honen xede den programazioa gauzatzeko beharrezkoak diren udal-azpiegiturak eta beharrezko baliabideak erabiltzeko aukera emateko, betiere eskuragarritasunaren eta udal-antolakuntzaren arabera.

Horretarako, Abesbatzak bere gain hartuko du jarduerak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimen, izapide eta tramite administratibo guztiak kudeatzeko ardura, betiere Udaleko Kultura Sailarekin koordinazioan eta indarrean dagoen araudia errespetatuz. Udalaren lagapena ez da ulertuko erabilera eskusibo gisa, eta jardueren garapena Udalak ezarritako baldintza tekniko, segurtasun eta erabilera-irizpideen mende egongo da.

Nolanahi Udalak bere esku gordetzen du udal-azpiegiturak edo beharrezko baliabideak edozein unetan berreskuratzeko eskubidea edota hitzarmenaren baldintzak aldatzeko eskubidea, bat-bateko herri intereseko gertaerek horrela justifikatuko luketenean eta eraikinaren erabiltzailearentzat inongo kalteordain-eskubiderik gabe.

10. OÑATI ABESBATZAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko ditu.

Horrez gain, honako hauek ere bete beharko ditu:

- Eskarian aurkezturiko, Oñati Abesbatzaren 60. urteurreneko programazioa aurrera eramatea.
- Egitarautik etorri litezkeen kudeaketa lanak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimen, izapide eta tramite administratibo guztiak kudeatzeko ardura hartzea.
- Oñatiko Udalaren dirulaguntza jaso dutela agerian utzi beharko dute, esku orri, kartel edo gainontzeko euskarrietan.
- Abesbatzak 60. Urteurreneko egitarauan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzen ahaleginduko da.
- Jarduera interes publikokoa izanik, herritarrengan edo barne antolakuntzan eragina duten ahozko zein idatzizko adierazpen orok Oñatiko Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko ditu, hau da, Oñati Abesbatzaren lan- eta zerbitzu-hizkuntza euskara izango da ahozko eta idatzizko harremanetan, eta horrela izan dadin ahaleginduko da Udalarekin, gainontzeko herriko eragileekin, baita herritarrekiko harremanetan ere.
- Elkartea diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartuta balego edo eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko baliokete, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 c) eta f) artikulua dioenaren arabera).
- Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, NISAE, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko. Oñatiko Parrokiko Koruari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak: Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.



OÑATI
dabilen herria

11. HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik urtebeteko (2026) iraupena izango du.

12. ZEHAPEN-ARAUBIDEA.

Diruz lagundutako erakundeak dirulaguntzaren arloan egin ditzakeen arau-haustek azaroaren 17ko 38/003 Legearen IV: tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduan IV. Tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehaztuko da.

Eta hitzarmen honetan zehaztutakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek sinatzen dute:

Izaro Elorza Arregui
Oñatiko Udaleko alkatea

Xabier Martin Celaya Arza
Oñati Abesbatzako ordezkaria

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: SINAd4fb87cc-e5f9-4039-8476-eb12e7503abb

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Oñati abesbatzaren hitzarmena

CSV/EKS:

SINAd4fb87cc-e5f9-4039-8476-eb12e7503abb